




GUGGENHEIM BILBAO **XX**
1997
2017

LANKIDETZA-PROIEKTU BERRITZAILEA:
GUGGENHEIM BILBAO MUSEOA
ETA GOOGLE ARTS & CULTURE

**PRENTSA
DOSSIERRA**

PRENTSA OHARRA

Guggenheim Bilbao Museoak lankidetza-proiektu berritzailea aurkeztuko du Google Arts & Culture-kin batera

Guggenheim Bilbao Museoak eta Google Arts & Culture-k lankidetza-proiektu bat jarri dute martxan, arte garaikidea eta Museoaren eraikina ezagutu, bizi eta esperimentatzeko modu berriak eskaintzeko helburuarekin; Google Arts & Culturek Museoari bereziki eskainitako webgunea baliatuko da xede hori lortzeko, eta publikorik gazteenarengan berariaz pentsatuta garatu da proiektua.

Orain arte ezagutzera eman ez den lankidetza hori Museoaren XX. Urteurrenaren testuinguruan bultzatu da, eta hilabeteetako lanaren emaitza da: denboraldi horretan, Googleren kultura-adarra den Google Arts & Culturek bere teknologia eskaini du Museoaren erabiltzaileen, bisitarien eta erakundearekin lotura duen edonoren esperientzia berrasmatzeko. Hainbat ekimen egin dira proiektuaren baitan: besteak beste, film labur baten grabaketa eta hari lotutako eduki osagarriak; Museoaren Bildumaren lagin adierazgarri bat; Street View teknologia baliatuz, Museoaren barnetik nahiz kanpotik egindako paseoa, Richard Serraren *Denboraren materia* lanetik edo publikoari normalki itxitako guneetatik (teilatuak, adibidez). Halaber, lehen aldiz gauzatu dira istorio interaktiboak edo *painting tours* delakoak, hainbat lanek ezkutatzen dituzten xehetasunak arakatzeko dituztenak: James Rosenquist-en *Flamenko kapsula*; *Lenin eta urretxindorra* suitea osatzen duten mihiseetako bat, Georg Baselitzena; Anselm Kiefer-en *Bi ibaien lurra*, edo Sigmar Polke-ren *Kathreiner*, *goizean*, *zakila tente*.

Guggenheim Bilbao Museoan grabitatea plegatzen film laburrak arkitekturak Guggenheim Bilbao Museoaren identitatean duen garrantzia nabarmentzen du. Ikus-entzunezko pieza horretan, hiri-esploratzaile bat eta *free runner* bat eraikineko teilatu eta azalera ezberdinetan zehar dabilta, Gehry-ren eraikina inoiz ikusi gabeko irudietan atzemateko. Film laburrak bi protagonista ditu: Trashhand argazkilari estatubatuarra, eta Johan Tonnoir, mundu mailako aditua *free running* delakoan —akrobazia eta atletismoa batzen dituen diziplina—; mugimendurako eta eraldaketarako gune boteretsua balitz bezala miatzen dute Guggenheim Bilbao Museoa, Bilbok mundu osoan duen irudia aldatu duen eraikinaren bihotzaren atzetik. Filmaz gain, atal berean hura grabatu zeneko anekdotak ikusi ahalko dira —*behind the scenes*—; Trashhand argazkilariaren irudirik onenak; eta 360º gradutan hartutako irudiak, bi protagonistak ekinean harrapatzen dituztenak, Museoan izandako esperientziaren sentsazioekin batera.

Guggenheim Bilbao Museoaren Bildumako Maisulanak erakusketan biltzen dira haren funts artistikoak osatzen dituzten pieza garrantzitsuenetako batzuk; artean, ***Guggenheim Bilbao Museoaren eraikuntza-pasarteak*** erakusketak ikuspuntu poetiko batetik kontatzen du Museoaren eraikuntza, Aitor Ortizen argazki-hautaketa baten bidez, eta ikuslea espazioen barruan kokatzea du helburu, hark argazkia fisikotasunetik esperimentera dezan.

Azkenik, eta artelanetan giza begiak orain arte hauteman ezin izan dituen xehetasunak atzemateko Googlek bereziki garatu duen kamera fotografikoari esker, Guggenheimen webgunean sartzen direnek 4 artelanez gozatzeko aukera izango dute, bereizmen handian: *Titulurik gabea*, Mark Rothko; *Antropometria urdin handia (ANT 105)* [*La grande Anthropométrie bleue (ANT 105)*], Yves Klein; *Titulurik gabea*, Clyfford Still, eta *Iberia*, Robert Motherwell.

Hala, Guggenheim Bilbao Museoaren eta Google Arts & Culturen arteko elkarlanak Museoaren ikuspegi original eta bizia eskainiko du haren XX. Urteurrenean.

Proiektu honek eskuragarri ipiniko duen edukietara sartzeko, Google Arts & Culturen webguneko Guggenheim Bilbao atalera sartu besterik ez dago, ordenagailuan nahiz mugikorrean, edota Museoko webgunearen hasiera-orriko loturan sakatu daiteke: <https://www.guggenheim-bilbao.eus/eu/>

[g.co/guggenheimbilbao](https://www.guggenheim-bilbao.eus/eu/)

Bilbo, 2017ko urriak 25